

Ohore handia

Egin, 1995-02-18.

Korrikan omendua izatea niretzat ohore handia izan zen. AEK-k euskararen alde egin duena dut-eta gogoan. Hau dut kontuan, zeren eta indarrak Korrikarekin pausoka metatzen baitira. Gaztetxo nintzenetik sentitu dut neure baitan euskararen arnasestua. Korrikan aurkitzen dudana. Ez nuen uste, hala ere, orain bi urte Bilbo Handira iristen ari zen Korrikaren mezu ederra azken kilometroan hartu nuenean sentitu nuen dardara hainbestekoa izango zenik. Egia da ez nindoala bakarrik, nere eskutik hartuta hamar urteko neure biloba nagusia neraman. Etorkizuna! Honen begietatik ikusi nahi nuen Euskal Herri osoa gurutzatu zuen euskara Bilboko jendetza handiarekin magalera indartsu heltzen, eta sentitu nuen nere eskuturreko pulsuan Nikolaren dardara berria. Esan nuen nereko, euskara salbo duk.